



egunez, beren klase-interesak defenditezkotan, Euskal Herriaren burujabetza-beharretik aldendu dira, imperialismoaren alderdira paseaz. **Burujabetzaren** defentsa eta **sozialismoaren** defentsa zinez egin nahi dituen euskal giza-multzoa, **berbera** da; eta abertzaletasunak etorkizunik ez du ezkerraldeetik baizik. Burujabetza **ezker abertzalearen bitartez** lortuko da, ala ez da inoiz lortuko.

Espainiaren eta Frantziaren barruan gure eskubideak lortzeko aukerarik ez dagoela, gorago esan dugunez, behin eta berriz gogorazten digute eguneroko gertakariak.

Soluzioa, hitz batez, **autodeterminazioaren eskubidea erabiltzea da**: «Herri guztiek dute autodeterminatzeko eskubidea. Eskubide hau dela-ta, beren antolaketa politika beren gisara finkatzeko dretxoak dute; baita ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren alorretan beren kabuz bidea hautatzeko ere». Estatu gehiengehienek onartua duten eskubide hau baliatuz (Madrillek ere sinatua du) guk **autodeterminatzeko eskubidea** eskatzen dugu; eta hautaketa horretan **independentzia** eskatzen dugu.

«Burujabetza» hobeki letorke agian «independentzia» baino; independentzia gaur oso nazio gutxi baitute. Galestarrek ere «freedom for Wales» eskatu nahiago izaten dute, «independence» baino. Baina arazoa ez da hitz kontua: euskaldunok, azken urteetako kondairak erakatsi dizkigunak kontutan hartuz, **burujabetza** nahi dugu; Espainiatik eta Frantziatik **bereziz**, eta Iparraldea eta Hegoaldea **batuz**. Hau eskatzeko eskubidea dugu. Eta kitto.

Gure herria ez da beste herriak baino gehiago; baina gutxiago ere ez. Españatarrek eta frantsesek duten **esku-bide bera** eskatzen dugu geuretzat. Hor ikusten ditugu, beren buruaz jabeturik, Islandia, Albania, Grezia, Gabon, Armenia, Noruega eta Finlandia; eta guk **etorkizun berbera** nahi dugu geure herriarentzat.

Gure herriaren oinarria bera euskara izanik, «to be or not to be» borroka, maila horretan ere gertatzen da. Kautsky sozialistaren hitzak geure eginez, **nazio-ardatza hizkuntzan** ikusten dugu. Ez dago burujabetzarik nazio-hizkuntzarik gabe. Euskadi ez da Askatua inoiz izango, Euskalduna ez bada.

Horra hor ene iritzia hitz gutxitan. Eta argi eta garbi.

burujabetzari bai

TXILLARDEGI

Gure herria, Euskal Herria, bi Estatutan erdibituta dago. Hegoaldeko partea, horrez gain, beste bi partetan zatitua: Vascongadak» eta «Navarra». («Navarra» ez da Nafarroa; «Navarra» delako horretan Baxenabarre ez baita sartzen). Nafarroa zaharrak galdu zituen eskualdeak (Jakaldea, Errioxako Mendebaldea, Oka-Bureba aldeak), indarka enboretetik berezi araziak, aipatu ere ez dira egiten. Gure herria, hitz batez, apurtua, zapaldua eta desegina dago hamaika puskatan.

Puskaketa hori indarka gertatu da. Bai 1789-an, bai 1839-an, bai 1876, 1937 eta 1977-an, gure herriaren nahia ukatua izan da: odoletan gehiengotan; kanpokoan gehiengoan ittota

bestetan. «Cambio» delakoa eskaini zaigunean, polizia bete dira gure herriak eta hiriak, okupazioaren kolorea nabarmenkiago agerreraiz. Eta gure hizkuntzari eusteko eskubiderik ahulenenak berak ukatu berri zaizkigu Madriletik eta Paristik.

Zapalketa horren ondorioz, gure nazio-identitatea, gure **euskaltasuna** hobeki esateko, gainbehera doa; eta Euskal Herriaren oinarri den hizkuntza, erabilpenetik irteteko zorian dago. Egia esan, aski da gure herrian barrena adi ibiltzea, erdara ia osoki nagusiturik dagoela ulertzeko.

Gure herria, bestalde, beste edozein herri bezala, klasetan zatituta dago. Hots, burgesia nagusia aspaldidanik, eta gainerako burgesia gaurko